Sortutako kenkariak edo erakunde batek izan dezakeenak 2015eko ekitaldian zehar izandako inbertsio eta gastuei egiten die erreferentzia. Bestalde, enpresa batek ekitaldiaren likidazioan aplikatutako kenkariaren zenbatekoak ez du zertan ekitaldian sortutako kenkariarekin bat etorri behar. Izan ere, erakunde bakoitzak aitortutako kuota likidoaren arabera da.

Los importes que figuran en los siguientes cuadros, se refieren a las deducciones por inversiones y creación de empleo generadas en el ejercicio 2015, las cuales pueden ser aplicadas en la declaración del Impuesto sobre Sociedades del ejercicio 2015, o bien, por falta de cuota líquida, quedar pendiente su aplicación hasta ejercicios posteriores.

La deducción generada o, lo que es lo mismo, a la que tiene derecho una entidad, se refiere a los importes de inversión y gasto realizados durante el ejercicio 2015. Por el contrario, el importe de la deducción aplicada en la liquidación del ejercicio por una empresa, no tiene por qué coincidir con la deducción generada en el ejercicio, sino que se trata de una magnitud que viene condicionada por la cuota líquida declarada por cada entidad.

**SOZIEATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES**  
**SORTUTAKO KENKARI NAGUSIEN BILAKAERA**  
**EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES DEDUCCIONES GENERADAS**

000 €

URTEAK AÑOS	A.F. Inbertsioak	Ingurumenek o Inbertsioak	Enpleguaren Sorrera	I+G+b	Kultura	Gainerakoak	Kenkari guztiak
	Inversiones en Activos Fijos	Inversión Medio Ambiental	Creación de empleo	I+D+i	Cultura	Resto	Total Deducciones
2010	163.472	22.694	34.996	324.048	861	120.939	667.010
2011	167.080	11.349	29.416	249.168	1.382	95.649	554.044
2012	135.941	23.214	26.614	234.092	1.006	59.076	479.942
2013	100.592	4.243	25.007	180.629	683	107.986	419.139
2014	125.045	6.747	36.349	152.023	2.435	5.180	327.779
2015	146.554	2.578	38.331	152.752	5.833	5.664	351.712
% 11/10	2,2	-50,0	-15,9	-23,1	60,5	-20,9	-16,9
% 12/11	-18,6	104,5	-9,5	-6,1	-27,2	-38,2	-13,4
% 13/12	-26,0	-81,7	-6,0	-22,8	-32,2	82,8	-12,7
% 14/13	24,3	59,0	45,4	-15,8	256,8	-95,2	-21,8
% 15/14	17,2	-61,8	5,5	0,5	139,6	9,3	7,3

**\*Edizio hau ixtean ez da izan zerga Arabako Foru Aldundian araudi erkideari jarraituz likidatu zuten sozietateen informazioa, eta horrek egindako datuen analisiari eragiten dio.** / Al cierre de esta edición no se dispone de la información de las Sociedades que liquidaron el impuesto en la Diputación Foral de Álava bajo Normativa Común, lo que afecta al análisis de los datos que se realiza

**KOADROA / CUADRO VII.47**

2015eko ekitaldian sortu ziren kenkariaren guztirako zenbatekoa (mugadunak zein mugarik ez dutenak) 351,7 milioi euro izan zen, hau da, 2014ko ekitaldian baino % 7 gehiago (24 milioi euro gehiago).

Aipatu behar da funtsean hazkunde hori aktibo ez-korrante berrietan egindako

El importe conjunto de las deducciones generadas con y sin límite de cuota en el ejercicio 2015 se han elevado a 351,7 millones de euros, lo que supone, respecto al ejercicio 2014, un aumento superior al 7%, que en términos absolutos se cifra en 24 millones de euros.

Hay que señalar que este aumento es el resultado fundamentalmente del incremento

inbertsioak sortutako kenketaren hazkundearen ondorioa dela, zeina % 17 baino gehiago hazi da 2014ko ekitaldiari dagokionez.

Bestalde, I+G+Bn egindako inbertsioek sortutako kenketen zenbatekoa ez da aise aldatu; epigrafe garrantzitsuena izaki (kenketa guztien % 43,4 da), oso gutxi hazi da.

Enplegua sortzeagatiko kenketak hazten dira, neurri batean ekonomia-jarduera hobetu delako.

Teknologia garbien gaineko eta ingurumena artatu eta hobetzeagatiko kenketak eboluzio negatiboa izan duten bakarrak dira, 2014ko mailara itzuli dira-eta.

Azkenik, aipatu behar da kultura sustatzeko sortutako kenketek hazkunde handia izan dute azken bi urteotan.

### **3.a.3. Beste zerga zuzeneko batzuk**

#### **a. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga**

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga zuzeneko tributua da, erkide lurraldean bizi ez diren pertsona fisiko eta juridikoek euskal lurraldean eskuratutako errenta zergapetzen duena. Zerga ordaintzeko obligazio erreala duten zergadunei aplikatuko zaie tributua hau.

Hori ez da zergadun ez-egoiliarren tributazioa aztertu beharreko ikuspegi bakarra. Hain zuzen, barne-araudiaz gain, onartuta egon daitekeen nazioarteko araudia, zergapetze bikoitzeko hitzarmenen bidezkoa, hartu behar da aintzat; beraz, nazioarteko garrantzia duen egitatezko kasu bat gertatzen denean, lehenengo eta behin araudi arruntera jo beharko dugu, egonez gero, eta, halakorik ez badago edo hori zehatza ez bada, barne-araudira jo beharko dugu, eta ez beste hurrenkera batean.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga 1999an sartu zen euskal zerga-sisteman, zerga bera arautzen zuten eta ordura arte pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan zegoen ordaintzeko antzinako betebeharrak erreala ordeztu zuten foru arauen bidez.

de la deducción generada por inversión en activos no corrientes nuevos, la cual aumenta más de un 17% respecto al ejercicio 2014.

Por otro lado, se mantiene estable el importe de las deducciones generadas por inversiones en I+D+i, que siendo el epígrafe más importante con un 43,4% sobre el total de deducciones, se incrementa ligeramente.

Las deducciones en concepto de creación de empleo aumentan, en parte derivadas de la mejora de la actividad económica.

Las deducciones sobre tecnologías limpias y por conservación y mejora del medio ambiente son las únicas que experimentan una evolución negativa, retrocediendo respecto al año 2014.

Por último, hay que señalar el fuerte incremento que han experimentado en los dos últimos años las deducciones generadas para el fomento de la cultura.

### **3.a.3. Otros Impuestos Directos**

#### **a. Impuesto sobre la Renta de no Residentes**

El IRNR es un tributo de carácter directo que grava la renta obtenida en territorio vasco por las personas físicas y entidades no residentes en territorio español. Es el tributo por el que se somete a gravamen a los contribuyentes sujetos a la denominada obligación real.

Esta no es la única perspectiva desde la que hay que analizar la tributación de los contribuyentes no residentes, además de la normativa interna debemos tener en cuenta la posible normativa internacional, vía Convenios de Doble Imposición, que se haya aprobado, de tal modo que ante un determinado supuesto de hecho con trascendencia internacional, deberemos acudir primero a la normativa convencional, si la hay, y en su defecto, o ante la falta de precisión de la misma, a la normativa interna, y no en otro orden.

El Impuesto sobre la Renta de no Residentes se introdujo en sistema tributario vasco en 1999 por medio de las Normas Forales que regulaban el propio Impuesto y que sustituyeron a la antigua obligación real de contribuir existente hasta entonces en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre Sociedades.



Foru arau horiek eguneratu egin dira, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga sozietateen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egindako erreformekin bat etorraraziz eta zuzeneko zergapetzearen figura nagusien erreforma osoa burutuz.

Ekonomia Itunaren 21.Bat artikuluan ezartzen da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga itundutako tributua dela eta une bakoitzean Estatuak ezartzen dituen arau substantibo eta formalen arabera arautzen dela.

Hala ere, egoitza atzerrian daukaten pertsona edo erakundeek Euskal Herrian establezimendu iraunkorrak helbideratuta izanez gero, zerga horren inguruko araudi autonomia aplikatzen zaie pertsona edo erakunde egoiliarrek izanez gero, Sozietateen gaineko Zergaren inguruko araudia aplikatzen bazaie.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren oinarritzko foru araudia ondorengoa da:

#### **Araba**

- Ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.
- 3/2016 Foru Dekretua, Urtarrilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudia onartzekoa.

#### **Bizkaia**

- Abenduaren 5eko 12/2013 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 48/2014 Foru Dekretua, apirilaren 15ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudia onartzen dena.

#### **Gipuzkoa**

- Abenduaren 10eko 16/2014 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.
- Maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko

Estas Normas Forales se han ido actualizado acompasando la regulación del IRNR con las reformas efectuadas en el Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y completando una reforma integral de las principales figuras de la imposición directa.

El Concierto Económico establece en su artículo 21.Uno. que el Impuesto sobre la Renta de no Residentes es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

No obstante, a los establecimientos permanentes domiciliados en el País Vasco de personas o entidades residentes en el extranjero les será de aplicación la normativa autónoma de este impuesto si en el caso de ser personas o entidades residentes resultara de aplicación la normativa del Impuesto sobre Sociedades.

La normativa foral básica del Impuesto sobre la Renta de no Residentes es la siguiente:

#### **Álava**

- Norma Foral 21/2014, de 18 de junio, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- Decreto Foral 3/2016, del Consejo de Diputados de 12 de enero, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

#### **Bizkaia**

- Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.
- Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 48/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

#### **Gipuzkoa**

- Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento del

Zergaren araudia onartzekoa.

Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

VII.48 koadroan lurralde historikoetan 2011-2016 aldian bildutako zenbatekoaren bilakaera jaso da, eta bertan erakusten da Estatuarekiko erregularizazioak direla eta, diru-bilketak murrizketa izan duela azken urteotan.

Aurreko urtean gertatu zeen bezala, 2016. Ekitaltian Estatuan bizi ez diren pertsona fisiko eta juridikoek euskal lurraldean eskuratutako errenta zerga zuzen moduan zergapetzen duen zuzeneko zergaren bilketak negatiboa izan da.

1999an ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga indarrean sartu zenetik, 2015. urtea izan da zerga horrek bilketa negatiboa izan duen lehen urtea. Diru-sarreraren beherakada Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatu da, itzulketen gehikuntza handi bat dela medio; hori dela eta, 65 milioi euroko bilketa negatiboa egon da, Arbitraje Batzordeak gai horren inguruan eman zuen ebazpena aplikatzeagatik AEATren alde egindako itzulketen ondorioz. 2016an, Bizkaiko Ogasunak beste ordainketa bat egin dio ZAEari, eta beherakada % 95,6 jaitsi den arren, 2,39 milioi euro gutxiago bildu dira.

Araban eta Gipuzkoan diru-bilketa % 113,6 eta % 82,6 hazi da hurrenez hurren, baina ez dute konpentsatzen Bizkaiko bilketa negatiboa, bilketa negatibo hori % 65,5 gutxitu den arren.

El Cuadro VII.48, que recoge la evolución de la recaudación por Territorios Históricos en el período 2011-2016, muestra una reducción de la recaudación en los últimos años debido a regularizaciones con el Estado.

Al igual que ocurrió en 2015, en el año 2016 la recaudación del tributo directo que grava la renta obtenida en territorio vasco por las personas físicas y entidades no residentes en el Estado ha sido negativa.

Desde que entró en vigor en 1999 el Impuesto sobre la Renta de No Residentes, es el primer año, 2015, en el que este impuesto presenta una recaudación negativa. La caída en los ingresos se produce en el Territorio Histórico de Bizkaia, la razón, un fuerte incremento de las devoluciones lo que conlleva una cifra de recaudación negativa de 65 millones de euros y ello por las devoluciones efectuadas en favor de la AEAT por aplicación de resolución de la Junta Arbitral sobre esta materia. En 2016, la Hacienda de Bizkaia ha realizado otro pago a la AEAT, y aunque la negatividad ha descendido en un 95,6% conlleva una cifra de recaudación negativa de -2,39 millones de euros.

En Álava y Gipuzkoa se produce un aumento de la recaudación de un 113,6% y un 82,6% respectivamente, sin embargo no compensan la recaudación negativa de Bizkaia a pesar de reducirse la negatividad en un 65,5%.

**Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga / Impuesto sobre la Renta de no Residentes**  
**Diru-bilketaren bilakaera lurralde historikoko**  
 Evolución de la recaudación por territorios históricos

	<b>ARABA</b> ÁLAVA	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>EUSKAL AE</b> C.A. DE EUSKADI
2011	6.032	67.791	8.276	82.099
2012	6.406	20.899	5.482	32.787
2013	3.747	33.934	5.453	43.135
2014	3.467	-1.433	7.559	9.593
2015	3.421	-65.016	6.985	-54.610
2016	7.308	-22.448	12.751	-2.389
%12/11	6,2	-69,2	-33,8	-60,1
%13/12	-41,5	62,4	-0,5	31,6
%14/13	-7,5	-104,2	38,6	-77,8
%15/14	-1,3	-4.437,8	-7,6	-669,3
%16/15	113,6	65,5	82,6	95,6

**KOADROA / CUADRO VII.48**

### **b. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

Araudi autonomoko zerga itundua da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Foru-aldundiei dagokie zerga hori ordainaraztea haien lurralde-eremuan, baldin eta oinordetzaren kausatzaileak Euskadin bazuen ohiko bizilekua, dohaintutako ondasun higiezinak euskal lurraldean badaude eta dohaintutako ondasunen eta eskubideen dohaintza-emaileak euskal lurraldean badu ohiko bizilekua.

Araudi autonomopeko zerga izan arren, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, baldin eta bost urte baino gutxiago pasa badira kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak egoitza Euskadin eskuratu zuenetik zerga ordaindu beharra sortu den arte. Hauek dira zerga hori arautzen duten arauak:

#### **Araba**

- Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa.
- 74/2006 Foru Dekretua, azaroaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren arautegia onartu zen.

### **b. Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones**

El Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones es un impuesto concertado de normativa autónoma. Su exacción corresponde a las Diputaciones Forales dentro de su ámbito territorial cuando, en las sucesiones, el causante tenga su residencia habitual en el País Vasco y cuando, en las donaciones de bienes inmuebles, éstos radiquen en el territorio vasco, y en las de los demás bienes y derechos, cuando el donatario tenga su residencia habitual en dicho territorio.

A pesar de tratarse de un tributo de normativa autónoma, existe la salvedad de que las Diputaciones Forales apliquen las normas de territorio común, cuando el causante o donatario hubiese adquirido la residencia en el País Vasco con menos de cinco años de antelación a la fecha de devengo del Impuesto. La normativa que regula este Impuesto es la siguiente:

#### **Álava**

- Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.
- Decreto Foral 74/2006, del Consejo de Diputados de 29 de noviembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

## **Bizkaia**

- 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zergari buruzkoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da

## **Gipuzkoa**

- Urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Araua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa.
- Urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoa.

2016an Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren diru-bilketak % 2,4 beherakada jasan du.

Gipuzkoan izan ezik (bertan % 4,0ko gorakada izan du zerga-bilketak), gainerako Lurralde Historikoetan diru-bilketak bilakaera negatiboa izan du, bereziki Araban, aurreko urtearekin alderatuta % 14,1eko beherakada izan baitu.

2016an zerga horren bilketa zerga itunduen bilketa osoaren % 0,9 izan zen.

2011-2016 epean bilketak lurralde historiko bakoitzean izan zuen bilakaera VII.49 Koadroan eta VII.21 Grafikoan jaso da.

## **Bizkaia**

- Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.
- Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

## **Gipuzkoa**

- Norma Foral 3/1990, de 11 de enero, del Impuesto de Sucesiones y Donaciones.
- Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto de Sucesiones y Donaciones.

La recaudación por el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones en 2016 ha experimentado una reducción del 2,4%.

Excepto en Gipuzkoa donde la recaudación aumenta un 4,0%; en el resto de Territorios Históricos han experimentado una evolución negativa de la recaudación, especialmente en Álava que experimenta un descenso del 14,1% respecto al año anterior.

La recaudación de este Impuesto representó en 2016 el 0,9% de la recaudación total por tributos concertados.

La evolución de la recaudación por Territorios Históricos en el período 2011-2016 se muestra en el Cuadro VII.49 y en el Gráfico VII.21 siguientes.

**Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga / Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones**  
**Diru-bilketaren bilakaera lurralde historikoka**  
 Evolución de la recaudación por territorios históricos


°°° €

	<b>ARABA</b> ÁLAVA	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>EUSKAL AE</b> C.A. DE EUSKADI
2011	11.052	37.228	28.864	77.145
2012	11.362	42.869	35.300	89.532
2013	11.831	55.741	37.844	105.417
2014	18.032	60.213	34.113	112.358
2015	13.082	60.418	40.188	113.688
2016	11.235	57.937	41.806	110.978
%12/11	2,8	15,2	22,3	16,1
%13/12	4,1	30,0	7,2	17,7
%14/13	52,4	8,0	-9,9	6,6
%15/14	-27,5	0,3	17,8	1,2
%16/15	-14,1	-4,1	4,0	-2,4

**KOADROA / CUADRO VII.49**

**Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga / Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones**  
**Diru-bilketaren bilakaera / Evolución de la recaudación 2011-2016**

°°° €



**GRAFIKOA / GRÁFICO VII.21**

### c. Ondarearen gaineko Zerga

Kontzertu Ekonomikoan Ondarearen gaineko Zerga arautegi autonomoko zerga itundua dela ezartzen da. Hala ere, Kontzertu hori egokitu, aldatu eta zabaltzen duen 38/1997 Legea indarrean sartu arte, lurralde erkideean indarrean dauden arauak aplikatu ziren, aitorpenak-autolikidazioak aurkezteko eredu eta epeen eta ekitaldiaren barruan diru-sarreraren modalitateen inguruko alorretan izan ezik.

Foru-aldundiei ala Estatuari dagokie hura ordainaraztea, zergadunak PFEZa zerga-administrazio bati ala besteari ordaindu

### c. Impuesto sobre el Patrimonio

En el Concierto Económico se establece que el Impuesto sobre el Patrimonio es un tributo concertado de normativa autónoma. No obstante, hasta la entrada en vigor de la Ley 38/1997 por la que se adapta, modifica y amplía dicho Concierto, se aplicaron las normas vigentes en territorio común, excepto en lo relativo a modelos y plazos de presentación de las declaraciones-autoliquidaciones.

El Impuesto sobre el Patrimonio es exigido por las Diputaciones Forales o por el Estado, según que el contribuyente esté sujeto por

behar dion erreparatuta. Horretarako, ez da kontuan hartzen zer lurraldetan dauden zergadunaren ondareko elementuak.

### **Araba**

- Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Araua.

### **Bizkaia**

- Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Araua.

### **Gipuzkoa**

- Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzkoa abenduaren 18ko 10/2012 Foru Araua.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean, Araba eta Bizkaiko zerga-sistemaren figura hori berreskuratu da behin betiko; Gipuzkoan, ordea, Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko Zerga ezarri da (Ondarearen gaineko Zerga ordeztzen duen zerga berria).

Zerga berriro ezartzearekin batera, aurreko araubidean zeuden hutsune teknikoak eta ekitatekoak zuzendu behar dira, zerga arloa eta zerga ordaintzeko baldintza formalak eta materialak berriz definituz, Ondarearen gaineko Zerga benetan lagungarria izan dadin justiziarako, progresibotasunerako eta Bizkaiko zerga sistemaren ekitaterako, ekoizpen jarduerak eginez aberastasuna sortzea zigortu gabe, konfiskazioa kentzen saiatuz eta zerga-oinarrien kontrol egokia ekinez.

Aurreko urteetako araubidean zeuden arauen aldean, 2015erako aitortpena egiteko betebeharrari eta salbuespenaren gutxiengo kopuruari buruzko araubide berrian adierazitako zenbatekoa dela-eta, hau da, izango dira 800.000 euroko (Gipuzkoan 700.000 euroko) zerga-oinarriaren murrizketa zergadun guztientzat, salbuesitako gutxieneko gisa, eta ohiko etxebizitzaren salbuespena 400.000 euro (Gipuzkoan 300.000 euro) ezartzen da.

Laburbilduz, 2011. Urtetik aurrera berriz ezartzen da indargabetutako Ondarearen

IRPF a una u otra Administración tributaria, con independencia del territorio donde radiquen los elementos patrimoniales.

### **Álava**

- Norma Foral 9/2013, de 11 de marzo, del Impuesto sobre el Patrimonio.

### **Bizkaia**

- Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio.

### **Gipuzkoa**

- Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

Con entrada en vigor a partir del 1 de enero de 2013 se recupera esta figura impositiva con carácter definitivo en el sistema tributario de Álava y Bizkaia; y en Gipuzkoa se implanta el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas (nuevo impuesto que sustituye al Impuesto de Patrimonio).

El restablecimiento del impuesto, exige corregir las deficiencias técnicas y de equidad que se apreciaban en la regulación anterior, a través de la redefinición de la materia imponible y de las condiciones formales y materiales de su tributación, de manera que contribuya realmente a la justicia, progresividad y equidad del sistema tributario, sin penalizar la generación de riqueza a través de las actividades productivas, sirviendo con eficacia a la eliminación de la evasión fiscal y a un adecuado control de las bases impositivas.

En la nueva regulación para 2015 de la obligación de declarar y del mínimo exento, se mantienen las mismas cuantías respecto a los vigentes en el texto normativo de ejercicios anteriores, es decir, serán 800.000 euros (700.000 euros en Gipuzkoa) la reducción de la base imponible para todos los contribuyentes, en concepto de mínimo exento, y se establece la exención por vivienda habitual por un importe de 400.000 euros (300.000 euros en Gipuzkoa).

En resumen, a partir de 2011 se restablece de nuevo el derogado Impuesto sobre el

gaineko Zerga, nahiz eta zergadun gutxi batzuei baino ez zaien aplikatzen, gaitasun ekonomiko handia izanik modu nabarmenagoan lagundu behar baitute gastu publikoari eusten.


VII.50 koadroan eta VII.22 grafikoan lurralde historiko bakoitzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko bilketaren 2011 eta 2015. urteen bitarteko bilakaera jaso da.

Patrimonio, si bien limitando su aplicación a un reducido número de contribuyentes que, por su elevada capacidad económica, deben contribuir de forma más destacada al sostenimiento del gasto público.

El Cuadro VII.50 y el Gráfico VII.22 muestran la evolución de la recaudación en cada uno de los Territorios Históricos y para el conjunto de la Comunidad Autónoma entre 2011 y 2015.

ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS DIRU-BILKETAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI
2011	14.800	61.856	36.827	113.483
2012	14.266	64.305	38.808	117.379
2013	16.476	64.948	57.230	138.654
2014	16.127	61.480	59.532	137.139
2015	16.772	68.719	64.348	149.839
% 12/11	-3,6	4,0	5,4	3,4
% 13/12	15,5	1,0	47,5	18,1
% 14/13	-2,1	-5,3	4,0	-1,1
% 15/14	4,0	11,8	8,1	9,3

KOADROA / CUADRO VII.50



GRAFIKOA / GRÁFICO VII.22

2015eko Ondarearen aitopenetan sartutako kopurua ia- ia 150 milioi eurokoa izan da, hau da, 2014koarekin alderatuta, horrek % 9,3 gorakuntza izan du.

El importe ingresado en las declaraciones de Patrimonio 2015 ha sido casi 150 millones de euros; es decir, ésta ha experimentado un aumento del 9,3% respecto a 2014.

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO**  
**ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS**  
**ZERGA-OINARRIAREN OSAGAIK / COMPONENTES DE LA BASE IMPONIBLE**

000 €


KONTZEPTUAK	ARABA ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		CONCEPTOS
	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	
Ondasun higiezinak	768.960	18,3	1.113.003	6,1	3.308.712	24,2	5.190.675	14,3	Bienes Inmuebles
Enpresa eta lanbide jarduerak	8.061	0,2	65.306	0,4	98.281	0,7	171.648	0,5	Activ. empres. y profesionales
K/k eta aur. kontuen gord.luak.	390.678	9,3	1.896.119	10,3	1.686.453	12,3	3.973.250	11,0	Depós. En c/c, cta de ahorro.
Balore higikorak	2.638.484	62,8	14.926.891	81,3	8.028.743	58,7	25.594.118	70,6	Valores mobiliarios
Bizitza aseguruak	91.141	2,2	405.444	2,2	258.949	1,9	755.534	2,1	Seguros de Vida
Bestelakoak	410.562	9,8	425.288	2,3	563.467	4,1	1.399.317	3,9	Otros
Zorrak	-103.901	-2,5	-462.294	-2,5	-267.094	-2,0	-833.288	-2,3	Deudas
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.203.985</b>	<b>100,0</b>	<b>18.369.757</b>	<b>100,0</b>	<b>13.677.512</b>	<b>100,0</b>	<b>36.251.253</b>	<b>100,0</b>	<b>TOTAL</b>

**KOADROA / CUADRO VII.51**

Zerga-elementuen arabera zehaztuta adierazten dute VII.51 Koadroak eta VII.23 Grafikoak 2015 ekitaldiko zerga-oinarria.

En el Cuadro VII.51 y el Gráfico VII.23 se desglosa, por componentes, la base imponible correspondiente al ejercicio 2015.

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE PATRIMONIO**  
**ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS**  
**ZERGA-OINARRIAREN OSAGAIK / COMPONENTES DE LA BASE IMPONIBLE**



**GRAFIKOA / GRÁFICO VII.23**

2015. ekitaldiko aurkeztutako aitorten-kopuruak gutxitu du aurreko ekitaldian alderaturik, batez ere Gipuzkoan aurkeztutako aitorten-kopuruak murriztea (% 8,0).

El número de declaraciones presentadas del ejercicio 2015 ha disminuido con respecto a 2014, fundamentalmente por la reducción del número de declaraciones presentadas en Gipuzkoa (- 8,0%).

Aitorten kopururik handiena 800 eta 1.600 mila euro arteko tartean pilatu zen, % 50,7, hain zuzen. Hala ere, 6.400 mila euro baino gehiagoko tartean pilatu zen zerga-oinarri garbiaren % 33,8 eta kuota likidoaren % 46,7. Kontzeptu horiei buruzko datu gehiago jaso dira VII. 52, 53 eta 54 Koadroetan.

El mayor número de declaraciones se concentró en el intervalo comprendido entre 800 y 1.600 miles de euros, 50,7%. Sin embargo, fue el tramo superior a 6.400 miles de euros, donde se acumuló el 33,8% de la base imponible neta y el 46,7% de la cuota líquida. Más datos referidos a estos conceptos en los Cuadros VII. 52, 53 y 54.



**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO  
ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS  
AITORPEN KOPURUA / NÚMERO DE DECLARACIONES**

°°° €

Zerga-Oinarria Base Imponible  °°° €	ARABA ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		
	Kopurua Número	%	% Met./ Ac.	Kopurua Número	%	% Met./ Ac.	Kopurua Número	%	% Met./ Ac.	Kopurua Número	%	% Met./ Ac.
< 800	82	5,0	5,0	232	3,3	3,3	922	12,4	12,4	1.236	7,7	7,7
800 - 1.600	830	50,7	55,7	3.444	49,0	52,3	4.084	54,8	67,2	8.358	51,9	59,5
1.600 - 3.200	448	27,4	83,1	2.069	29,4	81,8	1.745	23,4	90,6	4.262	26,5	86,0
3.200 - 6.400	187	11,4	94,5	842	12,0	93,8	504	6,8	97,4	1.533	9,5	95,5
> 6.400	90	5,5	100,0	439	6,2	100,0	193	2,6	100,0	722	4,5	100,0
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.637</b>	<b>100,0</b>		<b>7.026</b>	<b>100,0</b>		<b>7.448</b>	<b>100,0</b>		<b>16.111</b>	<b>100,0</b>	

**KOADROA / CUADRO VII.52**

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO  
ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS  
ZERGA-OINARRIA / BASE IMPONIBLE**

°°° €

Zerga-Oinarria Base Imponible  °°° €	ARABA ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		
	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.
< 800	34.965	0,8	0,8	88.889	0,5	0,5	627.677	4,6	4,6	751.531	2,1	2,1
800 - 1.600	968.129	23,0	23,9	4.036.348	22,0	22,5	4.581.162	33,5	38,1	9.585.639	26,4	28,5
1.600 - 3.200	977.271	23,2	47,1	4.527.342	24,6	47,1	3.761.677	27,5	65,5	9.266.289	25,6	54,1
3.200 - 6.400	804.240	19,1	66,2	3.680.140	20,0	67,1	2.186.906	16,0	81,5	6.671.286	18,4	72,5
> 6.400	1.419.380	33,8	100,0	6.037.038	32,9	100,0	2.529.122	18,5	100,0	9.985.540	27,5	100,0
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>4.203.985</b>	<b>100,0</b>		<b>18.369.757</b>	<b>100,0</b>		<b>13.686.544</b>	<b>100,0</b>		<b>36.260.286</b>	<b>100,0</b>	

**KOADROA / CUADRO VII.53**

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO  
ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS  
KUOTA LIKIDOA / CUOTA LÍQUIDA**

°°° €

Zerga-Oinarria Base Imponible  °°° €	ARABA ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		
	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.	Zenbatekoa Importe	%	% Met./ Ac.
< 800		0,0	0,0		0,0	0,0	104	0,2	0,2	104	0,1	0,1
800 - 1.600	886	5,3	5,3	2.513	3,7	3,7	5.268	8,2	8,3	8.667	5,8	5,9
1.600 - 3.200	3.518	21,0	26,3	10.887	15,8	19,5	13.333	20,7	29,1	27.738	18,5	24,4
3.200 - 6.400	4.533	27,0	53,3	18.984	27,6	47,1	15.444	24,0	53,1	38.961	26,0	50,4
> 6.400	7.835	46,7	100,0	36.334	52,9	100,0	30.200	46,9	100,0	74.369	49,6	100,0
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>16.772</b>	<b>100,0</b>		<b>68.719</b>	<b>100,0</b>		<b>64.348</b>	<b>100,0</b>		<b>149.839</b>	<b>100,0</b>	

**KOADROA / CUADRO VII.54**

VII.55 taulak Euskadiko ondarearen banaketa erakusten du, generoaren arabera. Kontzeptuen arabera antzeko banaketa dagoen arren, emakumeen ondarea gizonena baino pixka bat handiago da.

El Cuadro VII.55 muestra la distribución del patrimonio en Euskadi de acuerdo con el género. Aunque hay una distribución similar por conceptos, el patrimonio de las mujeres es ligeramente superior a los hombres.

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / 2015 / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO  
 ABERASTASUNAREN ETA F. HANDIEN G. Z. / I. S/ LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS  
 ONDAREA GENEROAREN ARABERA / EUSKADI / PATRIMONIO SEGÚN GÉNERO**

000 €

KONTZEPTUAK	EMAKUMEAK MUJERES		GIZONAK HOMBRES		CONCEPTOS
	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	
Ondasun higiezinak	2.844.884	15,2	2.345.791	13,4	Bienes Inmuebles
Enpresa eta lanbide jarduerak	55.841	0,3	115.807	0,7	Activ. empres. y profesionales
K/ik eta aur. kontuen gord.luak.	2.059.864	11,0	1.913.386	10,9	Depós. En c/c, cta de ahorro.
Balore higikorak	13.115.221	70,1	12.478.897	71,2	Valores mobiliarios
Bizitza aseguruak	354.980	1,9	400.554	2,3	Seguros de Vida
Bestelakoak	624.955	3,3	774.362	4,4	Otros
Zorrak	-338.892	-1,8	-494.397	-2,8	Deudas
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.716.853</b>	<b>100,0</b>	<b>17.534.400</b>	<b>100,0</b>	<b>TOTAL</b>

**KOADROA / CUADRO VII.55**

#### **d. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga**

Itundutako zerga da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura erregulatzeko. Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorten eta ordainketa ereduak onartu ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berberak jasoko dira gutxienez; eta ordainketak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazioaldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera erreala duena, eta energia elektrikoaren ekoizteko eta energia hori sistema elektrikoan sartzeko jarduerak zergapetzen ditu. Izan ere, elementu horiek energia elektrikoaren ekoizlearen gaitasun ekonomikoa islatzen dute, zeinen instalazioek sortzen eta isurtzen duten energia bideratu ahal izateko garraio eta banaketa-sareetan inbertsio esanguratsuen eragiten dituzten, eta ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak dituzten. Halaber, hornidura uneoro bermatzeko behar diren kostu handiak sortzen dituzte. Zerga sortze-instalazio guztietako ekoizpenari aplikatuko zaio.

Hau da foru-araudia, lurraldez lurralde:

#### **d. Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica**

Es un impuesto concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. No obstante, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

El Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, de carácter directo y naturaleza real, grava la realización de actividades de producción e incorporación de energía eléctrica en el sistema eléctrico, elementos que reflejan la capacidad económica de los productores de energía eléctrica cuyas instalaciones originan importantes inversiones en las redes de transporte y distribución de energía eléctrica para poder evacuar la energía que vierten a las mismas, y comportan indudables efectos medioambientales, así como la generación de muy relevantes costes necesarios para el mantenimiento de la garantía de suministro. El Impuesto se aplica a la producción de todas las instalaciones de generación.

La normativa foral, desglosada por territorios,

es la siguiente:

### **Araba**

- 24/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergari buruzkoa.

### **Bizkaia**

- 6/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergari buruzkoa.

### **Gipuzkoa**

- Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak kontsolidatzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko zerga arloko zenbait neurri ezartzen dituena.
- 308/2014 FORU AGINDUA, maiatzaren 14koa, 583 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autoliquidazioa eta ordainketa zatikatuak», eta 584 eredua, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autoliquidazioa eta ordainketa zatikatuak» onartu, eta haiek aurkezteko erak eta prozedurak arautzen dituena.

2014an itundutako argindarraren sektoreari lotutako zerga berrietatik, 2016an Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergak bakarrik izan du bilketa, 32,1 milioi euro izan dena. Hau da, aurreko urtean alderatuta, behera %13,9koa izan da.

Hurrengo koadroan azken hiru urteetako zerga diru-bilketaren bilakaera jasotzen da.

### **Álava**

- Norma Foral 24/2014, de 9 de julio, del Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica.

### **Bizkaia**

- NORMA FORAL 6/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre el valor de la producción de la energía eléctrica.

### **Gipuzkoa**

- La Ley 16/2012, de 27 de diciembre, por la que se adoptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica.
- ORDEN FORAL 308/2014, de 14 de mayo, por la que se aprueban los modelos 583 -Impuesto sobre el valor de la producción de la energía eléctrica. Autoliquidación y pagos fraccionados- y 587 -Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación y pagos fraccionados y se establece la forma y procedimientos de presentación

De los nuevos impuestos sobre el sector eléctrico que se concertaron en 2014, el único impuesto que ha registrado recaudación en 2016 ha sido el del Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica con un importe de 32,1 millones de euros lo que supone un decremento del 13,9% respecto a 2015.

En el siguiente cuadro se recoge la evolución de la recaudación del impuesto en los tres últimos años.

**ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GAINEKO ZERGA BILDUTAKO  
ZENBATEKOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA  
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE LA PRODUCCIÓN DE LA  
ENERGÍA ELÉCTRICA POR TERRITORIOS HISTÓRICOS**

000€

	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
2013	3.978	12.438	8.093	24.509
2014	4.515	14.374	9.328	28.217
2015	6.129	18.854	12.322	37.304
2016	5.264	16.273	10.598	32.135
% 14/13	13,50	15,56	15,27	15,13
% 15/14	35,76	31,17	32,09	32,21
% 16/15	-14,12	-13,69	-13,99	-13,86

**KOADROA / CUADRO VII.56**

**e. Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineke Zerga**

Zerga itundutako zerga bat da eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko da. Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga horren karga tasak ezarri ahal izango dituzte, lurralde erkidean indarrean dauden muga eta baldintzen barruan.

Zerga zuzeneko tributu bat da, eta kreditu erakundeetan eratutako gordailuak kargatzen ditu. Karga tasa % 0,03 da.

Hau da foru-araudia, lurraldez lurralde:

**Araba**

- Diputatuen Kontseiluaren 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 15ekoa, arautzen duena kreditu erakundeetako gordailuen gaineke zerga

**Bizkaia**

- 9/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineke zergari buruzkoa.

**Gipuzkoa**

- Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak kontsolidatzeko eta jarduera ekonomikoak bul tza tzeko zerga arloko zenbait neurri ezartzen dituena.

**e. Impuesto sobre Depósitos en las Entidades de Crédito**

Es un impuesto concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, si bien, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen de este Impuesto dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común.

Es un tributo de carácter directo que grava los depósitos constituidos en las entidades de crédito. El tipo de gravamen es el 0,03%.

La normativa foral, desglosada por territorios, es la siguiente:

**Álava**

- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2014, del Consejo de Diputados de 15 de julio, de regulación del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito.

**Bizkaia**

- Norma Foral 9/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre los depósitos en las entidades de crédito.

**Gipuzkoa**

- La Ley 16/2012, de 27 de diciembre, por la que se adoptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica.

- 343/2015 FORU AGINDUA, ekainaren 22koa, «Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 411 eredua onartu, eta hura aurkezteko baldin tzak eta prozedura ezar tzen dituen.

2014an itundutako argindarraren sektoreari lotutako zerga berrietatik, Energia Elektriokoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergak bakarrik izan du bilketa, 32,1 milioi euro izan dena. Hau da, behera %13,9koa izan da.

Kreditu Erakundeen Gordailuen gaineko zerga 2014an hitzartu zen. 2016ko zerga horren diru-bilketa 24,3 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoarena antzekoa. Hurrengo koadroan azken hiru urteetako zerga diru-bilketaren bilakaera jasotzen da.

- ORDEN FORAL 343/2015, de 22 de junio, por la que se aprueba el modelo 411 «Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito. Autoliquidación» y se establecen las condiciones y el procedimiento para su presentación.

De los nuevos impuestos sobre el sector eléctrico que se concertaron en 2014, el único impuesto que ha registrado recaudación ha sido el del Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica con un importe de 32,1 millones de euros lo que supone un decremento del 13,9%.

En 2014 se concertó el Impuesto sobre los Depósitos en Entidades de Crédito. En 2016 la recaudación por este impuesto ha sido de 24,3 millones de euros, muy similar a la del año anterior. En el siguiente cuadro se recoge la evolución de la recaudación del impuesto en los tres últimos años.

KREDITU-ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GAINEKO ZERGA BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA				
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE LOS DEPÓSITOS EN ENTIDADES DE CRÉDITO POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
2014	1.493	6.180	4.626	12.299
2015	2.996	14.253	7.180	24.428
2016	3.042	13.680	7.601	24.323
% 15/14	100,62	130,64	55,22	98,63
% 16/15	1,56	-4,02	5,86	-0,43

KOADROA / CUADRO VII.57

### 3.b. Zeharkako zergen kudeaketa

#### 3.b.1. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

##### a. Araudia

Espania 1986an sartu zen Europako Ekonomia Erkidegoan, eta, geroztik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) da zeharkako zergen ardatza. Horiek horrela, bertan behera utzi ziren ordura arte indarrean zeuden zeharkako zerga gehienak, eta egoera berrira egokitu zen Ekonomia ituna.

Europar Batasunean harmonizatutako zerga da BEZa, eta haren zenbait alderdi arautzera

### 3.b. Gestión de Impuestos Indirectos

#### 3.b.1. Impuesto sobre el Valor Añadido

##### a. Normativa

Desde 1986 la imposición indirecta, como consecuencia de la incorporación de España a la Comunidad Económica Europea, gira en torno al Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA). Se suprimieron buena parte de los impuestos indirectos hasta entonces vigentes, adaptándose el Concierto Económico a esta nueva realidad.

El IVA es un impuesto armonizado en la Unión Europea y la capacidad normativa de los

mugatzen da Estatuaren araugintza-ahalmena. Egoera horrek eta zergaren ezaugarriek bultzatuta, Administrazio bakoitzak zerga hori ordainarazteko duen gaitasuna zehaztea izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren ituntze-jardueren xedea. Horretarako, egitate zergagarrien sorreralekuekiko lotura puntuei eta subjektu pasiboen ezaugarriari erreparatu zaie. Horrez gain, finantza-doiketa berri bat sortu zen, zerga-administrazio bakoitzari egozgarri zitzaien BEZaren zenbatekoa doitzeko, haien lurraldean egindako kontsumo errearen eta egiaz BEZagatik bildutako kopuruen arteko aldeari erreparatuta.

Honako arau hauek osatzen dute lurralde erkideko oinarritzko araudia: abenduaren 28ko 37/1992 Legeak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak eta abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak. Azken arau horrek beste hauek aldatu zituen: uztailaren 27ko 1041/1990 Errege Dekretua, zentsu-aitorpenei buruzkoa; martxoaren 9ko 338/1990 Errege Dekretua, Identifikazio Fiskaleko Zenbakiari buruzkoa; fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen abenduaren 18ko 2402/1985 Errege Dekretua; eta irailaren 11ko 1326/1987 Errege Dekretua, Europako Ekonomia Erkidegoak zerga-informazioa trukatzeari buruz emandako zuzentarauen aplikazioari buruzkoa.

Horiek horrela, BEZaren kudeaketarekin lotutako alderdiak arautzera mugatzen da lurralde historikoetako erakunde eskudunen araugintza-gaitasuna; zehazki, aitortenak eta sarrerak egiteko ereduak onestera eta sarrerak egiteko epeak finkatzera, likidazioaldi bakoitzerako.

Araudi propioa egiteko muga horiek badituzte ere, lurralde historikoek zenbait xedapen eman dituzte, lurralde erkidegoko legedia egokitzeko. Hau da foru-araudia, lurraldez lurralde:

## **Araba**

Estados miembros se limita a determinados aspectos. Este hecho, y las características propias del Impuesto, han significado que en la concertación entre la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Estado se atiende al reparto de la capacidad exaccionadora de cada Administración, según los puntos de conexión acordados para el lugar de realización de los hechos imposables y las características de los sujetos pasivos. Se creó, además, un nuevo ajuste financiero por la diferencia entre el IVA atribuible a cada Administración tributaria, según el consumo real de su ámbito y el efectivamente recaudado por cada una de las Haciendas.

La normativa básica del territorio común comprende la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido y el Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido y modifica el Real Decreto 1041/1990, de 27 de julio, sobre declaraciones censales, el Real Decreto 338/1990, de 9 de marzo, sobre el Número de Identificación Fiscal, el Real Decreto 2402/1985, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, y se modifica el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, y el Real Decreto 1326/1987, de 11 de septiembre, sobre aplicación de las Directivas de la Comunidad Económica Europea sobre intercambio de información tributaria.

De esta forma, la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos se limita sólo a aspectos relacionados con la gestión del Impuesto, en concreto con los modelos de declaración e ingreso y los plazos de ingreso para cada período de liquidación.

No obstante, a pesar de esta limitación para contar una normativa propia, cada uno de los Territorios Históricos ha aprobado las disposiciones correspondientes que adaptan la legislación de territorio común. La normativa foral, desglosada por territorios, es la siguiente:

## **Álava**

- Urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arautzailea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia onartzekoa.

- Diputatuen Kontseiluak apirilaren 27an emandako 124/1993 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia onartzekoa.

### **Bizkaia**

- Azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa.

### **Gipuzkoa**

- Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zerga egokitzeakoa.

Zerga ezarri ondoren, Europako barne-merkatuaren sorrerarekin batera, erabat aldatu zen zerga, 1993ko urtarrilean. Egitate zergagarri berri bat sortu zen, Europar Batasunean eskuratutako ondasunak zergatzeko, eta, ondorioz, Estatu kideek aukera dute ondasunak trukatzeko, aduanako izapideak bete gabe, baina, betiere, zergak destinoan ordaintzeko printzipioa betez. Errealitate berrira egokitu zen Ekonomia Ituna, eta foru-ogasunek kudeatu zituzten eskurapen horiek; izan ere, lehen inportaziotzat jotzen ziren eta Estatuen eskumena zen haiek kudeatzea. Aldaketa horren ondorioz, handitu egin zen kudeaketa propioaren bidez bildutako dirua eta, horrekin lotuta, murriztu egin ziren BEZaren doikuntzatik jasotzen ziren sarrerak.

92/77/CEE zuzentarauak zerga-tasak harmonizatu zituen, eta, ondorioz, ezabatu egin zen % 28ko tasa gehitua. Bestalde, % 3ko tasa txit murriztua sortu zen premiazko entrega eta prestazioei aplikatzeko. Tasa orokorra % 13tik al % 15era igo zen 1992ko abuztuan, tasak harmonizatzekeo arauen eskakizuna baitzen hura, gutxienez, % 15ekoa izatea 1993ko urtarrilean. Gerora, 1995ean, puntu bat igo ziren tasak, eta, horrenbestez, tasa orokorra % 16an finkatu zen, murriztua % 7an eta oso murriztua % 4an (lehen % 15, % 6 eta % 3koak ziren, hurrenez hurren).

2010. urtean, zerga tasa murriztuak eta orokorrak gora egin zuten, % 8 eta % 18

- Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, por el que se aprueba la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido.

- Decreto Foral 124/1993, del Consejo de Diputados de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

### **Bizkaia**

- Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

### **Gipuzkoa**

- Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

